

## *Maruri-Jatabe*

Aurkibidea

### **Udalerria: Maruri-Jatabe**

#### **Sarrera**



Mungialdea eskualdeko udalerria da. Ekialdetik Bermeoko Hiribildua du muga, hegoaldetik Gatikako elizatea, mendebaldetik Gorniz eta iparraldetik Lemoiz. Herria hamabi auzok osatzen dute: Billelabaso, Elortegi, Erdigune, Erribera, landuri, Ibarra, Jule, Kurtzegana, Larreta, Goieta, Saburdi eta Sakalde.

- **Biztanleak:** 916
- **Euskaldunak:** %63,22

#### **Ahotsak.eus-eko datu orokorrak**

- Hizlariak: **1**

- Zintak: **3**
- Pasarteak: **18**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **18**

## Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak

## Hizlariak

### Antonio Mardaras Arrieta (1922)



1922. urtean jaio zen Jatabeko Utxondo baserrian. Gurasoak Jatabekoak zituen: ama Zabalerrota baserrikoa eta aita Olagoitikoa. Sei neba-arrebatan bigarrena izan zen eta etxeko nagusienetarikoa izanda, eskolara joan baino lan asko egin behar izan zuen. Hamar urterekin, okin lanetan ibili zen etxerik etxe ogia asto gainean eramaten. Oso memoria ona zuen eta hiru pezeta irabazten zituela kontatzeaz gain, astoarekin gertatutako istorio asko kontatu zizkigun barre artean. Hamalau urte zituela, gerra hasi zen eta oso ondo deskribatu zigun bere etxe gainetik igaro zirenean abioiak tiroka hasi ziren momentu hori. Abioiean idatzita agertzen ziren letrak gogoratzen zituen oraindik ere. Hamazortzi urterekin soldadu bezala eraman zuten. Handik bueltatu zenean, Mungialdeko enpresa batean lanean hasi zen eta beste antzeko enpresa batzuetatik igaro ostean, 1951an, [Arteche](#) enpresan hartu zuten. Ia 20 urtez bertan egon ondoren erretiratu egin zen. 25 urte zituela, Mungian bizi zen Armintzako neska bat ezagutu zuen eta hiru urtez bikote moduan egon ondoren, 28 urterekin ezkondu eta andrearen etxea zen, Mungiako Atxuri auzoan dagoen Estretza baserrira joan zen bizitzen. Bertan, lau seme-alaba izan zituzten.

## Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

### 1. Familia eta harremanak

#### 1.1. Goizean ogiak banatu eta arratsaldean eskolara

- **Hizlaria(k)**: Mardaras Arrieta, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Andere
- **Erref**: MJA-001/004
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:06:51. **Bukatu**: 00:08:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- **Laburpena:** Gutxi joan zen eskolara. Baserrietara ez zen biderik egoten, eta hamar urterekin hasi zen ogia saltzen baserririk baserri astoarekin, anaia eta bera asto banarekin. Arratsaldeetan joaten zen eskolara. Egunean hiru pezeta irabazten zuten, eta amak diru hori derrigor behar zuen.

### **Transkripzioa**

-Eskolara, Jataben bertan, edo...

-Bai, Jataben bertan. Eskolara, gutxi joan naz; ta joan banintzen segun maistrok esaten otsen amari ba leiten ikesiko nauen nik ondo; joan banintzen. Bueno oin bere defenditen naz, ezta? baia... Ta orduan baserritarra ez zan egon kamiñorik; kamiño jenerala eon zana Mungitik Plentzira eon zana bakarrik. Eta hamar urte ein barik hasi nintzen astoaz panaderu haittära baserritarra, anaia eta biok. Bai, eta gero atsaldetan eskolara, baia gure amak eskolara botateko interesa eukitten euen baia goixien geure beharrak [eukitten genduzen], eta ezin joan. Esan bai maistroak eskolara gehitxuau ia zeaittik ez gaittun botaten ba, baia ezin bota ba, ezin bota, ba. Egunean hiru pezeta irebazi.

-Panadero moduen?

-Panaderuek, bai. Hillean hamazortzi hogerleko, ta geure enbidiez jente asko. Ta orduen eskolara, interesik ez zan egoten eskolarako bere. Ta guk ume-umetan, anaia eta biok asto banagaz; asto bat eukitten gendun beti eurretik etzean, eta gero bigarrena erosi behar zan. Eta bigarrena erosi, hemeretzi hogerleko pagata, bigarren astoa; hemeretzi hogerleko, hilkeko sueldue eta hogerleko bat gehau.

-Hori dana asto baten.

-Asto baten.

-Mesedie eingo eban?

-Eta bai, derrigor behar gendun ta, bigarrena derrigor behar zan.

## **Transkripziorik gabeko pasarteak**

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### **1. Zakuekin estalita, basaz beteta etxera (MJA-001/005)**

Oraingo moduko arropa eta babesgarri barik joaten ziren basoko bideetatik. Gerra denbora heldu arte ibili ziren ogia saltzen baserriz baserri. Basaz beterik itzultzen ziren; astoari hankak garbitu behar zitzaizkion ez gaixotzeko. Lantzean behin astoa jausi eta astoa altxa ezinik ibiltzen zen, baten baten laguntza izan arte.

### **2. Hiru eta bi kiloko ogiz betetako saskiak (MJA-001/006)**

Plentziara zihoan okinari itxaroten zioten bide ertzean, astoak kargatzeko. Saski bereziak zituzten ogiak sartzeko; hiru eta bi kiloko ogiak izaten ziren.

### **3. Ogien prezioa (MJA-001/007)**

Okinen arteko eztabaida egon zen ogiaren prezioaren gainean; debekatu egin zuten garestitzea. Orduan ogi handia erosten zuenari ritxe izeneko opiltxo bat oparitzen zioten.

#### **4. Elur egunetan bakarrik goizean eskolara (MJA-001/008)**

Arratsaldeetan joaten zen eskolara; eguraldi txarragatik edo, berandu helduz gero etxera, ez zen joaten. Elur gehiago egiten zuen antzina, eta elur egunetan ez zen ogia banatzen, astoak ez zuen bidea aurkitzen eta. Orduan joaten ziren goizean eskolara.

#### **5. Maisu gazteak parrandarako prest (MJA-001/009)**

Errioxar bat izan zuen maisu ogia banatzen hasi zen arte. Beste hiru ere izan zituen, baina maisuek irakasteko ahalegin handirik ez zuten egiten eta eurek ikasteko gogorik ez.

#### **6. Errepublika garaian, jendea kezkan (MJA-001/010)**

Gerra etorri arte jendea errebelde ikusten zen. Manifestazioak eta mugimendua zeuden. Bera umea zen eta ez zekien zein zen arrazoia, baina jendea kezkan ibiltzen zela bazekiten. Jataben hogei-hogeita hamar errepublikano egon ziren. Osaba alkate izan zen; aita EAjko bazkidea. Guardia egin beharra izaten zuen aitak.

#### **7. Hilabete ebakuatuta Algortan (MJA-001/012)**

Txakurra utzi zuten bakarrik, eta Algortara ebakuatu ziren, osabaren etxera. Itzuli zirenean, hutsik aurkitu zuten baserria. Ganadua ere bertara eraman zuten, eta padurako belar sailetatik eramaten zuten behientzako belarra. Gurdia beteta joan ziren Algortara. Ihesean zihoazenekin beterik ikusten ziren kaminoak.

#### **8. Goikoetxea ingeniariarekin elkarrizketa (MJA-001/013)**

Behin joan ziren lehengusuak Jatabeko etxea ikustera, eta bazekiten hutsik zegoela. Bidean kontrolak aurkitzen zituzten. Goikoetxea ingeniaria bidean aurkitu zuten errezeloa dute. Galderak egin zizkien eta eurek erantzun.

#### **9. Emandako babesari esker bizirik (MJA-001/015)**

Bi falangista egon ziren ezkutatuta Jataben, euren auzoan. Osaba alkateak babestu zituen; Franco sartu zenean, Larrinagako kartzelan hilabete egin ondoren, osaba eta aita epaiketari aske utzi zituzten falangista haien bitartekaritzari esker. Hala ere, izan zituzten isunak.

#### **10. Txahalak saldu isuna ordaintzeko (MJA-001/016)**

Diru zuria esaten zioten Euzko Jaurlaritzak sortutako diruari. Baina Franco sartu zenean, balio ez zuenez, diru gabe zeuden. Isunak ordaintzeko bi txahal saldu beharra izan zuten. Urte batzuetan, lagunek ere gorriak zirela eta ez zutela ezertarako eskubiderik esaten zieten.

#### **11. Inolako laguntzarik ez (MJA-001/017)**

Udal guztia eraman zuten atxilotuta. Francoren aldekoen baten indarra behar zen epaiketetan. Herrian idazkaria eta parrokoa ziren laguntzeko aukera zutenak, baina ez zuten sekula nazionalisten alde egin. Parrokoak lehengusinari ukatu zion laguntza hiru semeetako bat frontetik etxera ekartzeko. Zaurituta egon arren, eraman egin zuten frontera herritarren batek salatuta.

## **12. Trenean isilik joan behar (MJA-001/018)**

Eskolan erdaraz egiten zuten. Gurasoek ez zekiten gazteleraz eta ezezagun artean isilik egon behar, inork ez salatzen. Etxean beti egin dute euskaraz.

## **13. Inguru guztia metrailatu zuten hegazkinak (MJA-001/019)**

Oso ondo gogoratzen du Gernika bonbardatu zutenekoa. Osabari soroan laguntzen ari zela, hasi ziren hegazkinak hirunaka pasatzen eta metrailatu egiten zuten; eurak karkaban ezkutatu ziren; ganadua metrailatzen saiatu ziren baina ez zuten harrapatu. Baserriaren teilatua, berriz, zulatuta geratu zen. Gero, ganadua zuhaizpean lotu zuten, ikus ez zezaten. Mungian bota zituzten bomba batzuk.

## **14. Baserri atzean egin zuten tunela (MJA-001/020)**

Algortara ebakutatuta joan aurretik, baserri atzeko lurretan egin zuten tunel bat, eta han ezkutatu ziren hegazkin hotsa entzunez gero. Familia bakoitzak bere ezkutalekua zuen. Algortatik itzuli zirenean bonbek egindako zuloak ikusten ziren. Batez ere Francoren aldekoek botatakoak ziren, besteek ez zuten hainbesteko artilleriarik eta.

## **15. Soldadu italiarrak eta moroak (MJA-001/021)**

Soldadu italiarrak ziren pasatzen ziren gehienak. Andaluziarren batzuk ere egon ei ziren. Moroak ere pasatu ziren. Gauean kanoikadaka eta egunez hegazkinekin apurtu zuten "burdinazko hesia".

## **16. Hemezortzi urterekin eramaten zituzten gerrara (MJA-001/022)**

Hamabost urte zituela amaitu zen gerra. Hemezortzi urte beteta eramaten zituzten gazteak soldadu gerrara. Anaia deituta zegoen, baina gerra amaitu zen orduantxe.

## **17. Soldadutzan hiru urtez gosez (MJA-001/023)**

Hemezortzi urterekin joan zen soldadutzara: Garellanora lehenengo eta gero Somorrostrora. Jatabeko semea zen alferez batek eraman zuen bere konpainiara. Handik koartelera, eta destinoan mugara eraman zuten makiei aurre egiteko; hiru urte soldadu, gosez. Zazpi urte soldadu egondakoak ere egon ziren, lehenengo gerrako urteei gero soldadutzakoak gehitu zizkietelako. Arbi egosia jatera ere iritsi ziren.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-05-03*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com